

## **-JARDUERAK:**

Gure negozio-eredua martxan jartzeko, funtsezkoak diren hainbat jarduera gure kabuz egingo ditugu, hau da, gure esku egongo dira eta ez beste enpresen esku.

Gure negozioaren funtsezko jarduera bat da, gure modelo propioak egingo ditugula, hau da, berrerabiliko ditugu bezero desberdinen arropa, prenda berriak egiteko, gainera honen bidez birziklapena sustatuko dugu biztanleen artean. Horrez gain gure diseinu propioak edo pertsonalizatuak (bezeroen gustuen arabera) egingo ditugu eta estilo berri bat aurrera eramango dugu.

Enpresan izango dugun beste funtsezko jarduera bat honako hau da: behar izanez gero, langabezia dauden pertsonak kontratatuko ditugu. Hori garrantzitsua izango da, ez bakarrik gure enpresaren onerako, baita gizartearen onerako ere.

Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line denda kudeatzeko, mantentzeko eta sustatzeko jarduera ere.

### **• Gure funtsezko jardueren laburpena:**

- 1. Ekoizpena:** gure produktu propioak edo pertsonalizatuak ekoiztuko ditugu, beste pertsonen arrokekin.
- 2. Diseinua:** diseinu propioak egingo ditugu, daukagun materialaren arabera.
- 3. Laguntza:** bai langabeziari baita ingurumena zaintzen ere lagunduko dugu.
- 4. Garbiketa:** momentuz gu egingo dugu baina behar izanez gero, beste enpresa baten esku utziko dugu.
- 5. Webgunea:** webgunea sortu, mantendu eta haren bidez produktuak sustatuko ditugu.

